

Arrebato filma
Isilpean pasa zen
Ivan Zulueta ren
maisulana

▣ *Ezpalak*
▣ *Argitalpenak*

▣ *Denbora-pasak*
▣ *Makina bat kontu*

Ihesi
Plentziatik Butroera
banderizoen
bideetan

ARGIA

erdiko kaira

kultura eta aisia

Egonean Blues

Hamar urteko ibilbidearen ostean, Stay Blues talde donostiarrek estreinako estudioko diskoa kaleratu du Gaztelupeko Hotsak diskoetxearen eskutik. Bederatzi kantuz osatutako lehen lanean donostiarrek Duke Ellington edota Jimmy Witherspoon bezalako artista klasikoak omendu dituzte.

JON GURRUTXAGA

Álvaro Fernandez



Fernando Neira



Paul San Martin



Karlos Aranzegi



GAZTELUPEKO HOTSAK

2007ko urriaren 21a

ARGIA

27



Bluesman zuriak, doinu beltzak

STAY BLUES duela hamar bat urte sortu zen Donostian. Paul San Martín –pianoa eta ahotsa–, Álvaro Fernández –harmonika eta gitarra– eta Fernando Neira –baxua– dira blues talde gipuzkoarra osatzen duten hiru musikariak. Paul San Martín eta Álvaro Fernández izan ziren taldearen sortzaileak, bikote bezala aritu ziren hasieran eta Fernando Neirarekin hirukote gisa gero, joan zen urtean Karlos Aranzegi bateria lanetarako gehitu zitzaizen arte. Halere, Aranzegi partaidea baino, kolaboratzailea dela azaldu du taldeko abeslari Paul San Martinek: “Karlos Alex Ubago eta beste zenbait artistekin aritzen da, beraz, ez da ema-

naldi guztietan egoten. 2006an Donostiako Jazzaldian izan ginen hirurok eta 2007rako bateria jole batekin aurkeztea ideia ona izan zitekeela iruditu zitzaigun. Nik Karlos Alex Ubagorekin izan nintzenean ezagutu nuen, lehen diskoko biran izan nintzen Ubagorekin eta Karlos eta biok gelakideak ginen. Beraz, dezente ezagutzen dut. Ideia proposatu nion eta gustura etorriko zela esan zigun”. Stay Blues sortu aurretik beste talde batzuetan hartu zuten eskarmentua musikariok. Álvaro Fernández, adibidez, garai bateko Lau Behi osatu zuten partaideekin batera Blues Stop ize-neko bandan aritu zen urtetan, Donostian izan



GAZTELUPEKO HOTSAK

den lehen blues talde garrantzitsuenetako bat. Paul San Martin, aldiz, The Animals eta Pretty Things bezalako banden eragina zuen The Roadrunners taldean izan zen eta Alex Ubago-ekin ere aritutakoa da. Bide luzea egin dute gipuzkoarrek estreinako estudio lana argitaratu duten arte. Donostia eta inguruko aretoetan

Stay Blues

erdiko
kaiera

etengabe egin dituzte emanaldiak eta inguruko blues jaialdi garrantzitsuetan izan dira, Raimundo Amadorren kontzertu bat ere ireki zuten Burgosen.

Hainbeste urteren ostean Donostiako Jazzaldian jotzea oso garrantzitsua izan zen talde donostiarrarentzat. Disko bat grabatzea bakarrik falta zitzaien. Taldearen izen bereko lana Amasako IZ estudioetan grabatu dute Hector Leal teknikariarekin. Masterizazioaz berriz, Robin Schmidt arduratu da Alemanian, Karlsruhe-ko Mastering 24-96 estudioan.

Blues tradizionala

Blues beltz eta tradizionalerako joera du talde donostiarrak. Eta ez dago dudarik, sustraidun soinua erdiesteko helburua ongi baino hobeto lortzen du banda gipuzkoarrak. San Martinen ahotsa, berriz, lodia eta urratua beharrean, meharra eta garbia da. "Hasieran soinu beltza egiteko obsesioa nuen. Bestalde, ahotsa espresio bide bat denez, nahiago dut naizen bezala agertzea. Lehen ahotsa gehiago behartzen eta urratzen saiatzen nintzen. Baina kantatzea izugarri maite dut eta naizen moduan sonatzea nahiago dut. Pianoan, aldiz, bai saiatzen naiz Otis Spann edota Memphis Slim bezala jotzen. Baina ahotsaren tinbrea norberarena da eta orain ez dut batere urratzen. Gainera, zer egingo diogu bada! Zuria naiz, beraz... Dena den, bada zuria izanik bluesa oso ongi abesten duenik: Steve Miller, Gregg Allman... Tinbrea zuria izanik blues melodia politak sor daitezke", diosku San Martinek.

Bederatzi kantuz osatutako diskoan bluesaren adar ezberdinak lantzen ditu Donostiako laukoteak, rythm & bluesa, balada, gospelaren eragina duen abestiren bat... Guztiak artista klasikoek sinatutako abestiak dira. Hala ere, ez denak *bluesmen* klasikoek sortutakoak; horra hor, Duke Ellington jazz orkestra zuzendari ospetsuak konposatutako *I ain't got nothing but the blues* edota diskoa irekitzen duen *I know*, Bonnie Rait country abeslariaren pieza. Aipatu azken abesti

BATEKMILA
EUSKAL
MUNDUAK

Erakusketa
Irailaren 19tik azaroaren 17ra

www.batekmila.com

KM
kulturunea

Koldo Mitxelena Kulturunea
Ganbara aretoa
Urdaneta 9
Donostia

EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA
INSTITUT CULTUREL BASQUE

2007ko urriaren 21a

ARGIA
29

horretan Mikel Azpiroz piano jole eta teklistak hartu du parte. “Mikel aspaldidanik ezagutzen dugu. Nik pertsonalki asko miresten dut musikari bezala. Diskoa entzun zuen, asko gustatu zitzaion eta bera izan zen bere burua kolaboratzeko proposatu zuena. Kantuan Hammond bat sartzea ongi egongo litzatekeela komentatu zigun eta gu oso pozik. Etxean duen Hammond B3an grabatu zuen eta listo!”, diosku abeslariak. Kantu guztiek blues tradizionala dute ardatz, eta horixe zen, hain zuzen ere, taldearen helburua: gogoa AEBetako kotoi usaineko landetara barreiatzea, alegia. “Gure nahia blueseko estilo guztiak uztartzea da. Baxu joleari, adibidez, funky-a gustatzen zaio, baxu jole guztiei bezalaxe. Beraz, badira funky kantu pare bat. Niri, kasurako, boogie-ak sartzea gustatzen zait, pianistikoagoak baitira. Beraz, pare bat boogie ere sartu ditugu. Eta gero baladak daude. Taldea eroso sentitzen den eremua da balada, agian, adierazteko aukera gehien eskaintzen diguna delako. *Tempo* erdiko piezaren bat ere bada, baita shuffle estilokoren bat ere. Azkenaldian jazz eragina duen kantuak ere sartzen ari gara. Bluesaren barruan denetarik jotzen saiatzen gara”, azaldu du taldeko piano jole eta abeslariak.

Omenaldi txikiak

Blues talde eta bakarlarien artean bertsioak egiteko ohitura handia dago. Eta Stay Bluesek kasu honetan egin duen bezalaxe, disko osoak argitaratzen dira beste artista batzuen —normalean klasikoekin— kantuekin. Era honetara, bakarlariak edo taldeak abesti horren interpretazio pertsonala egin dezake. San Martinen esanetan, moldaketak egitea “omenaldi txikiak” egitea da beraientzat. “Nik askotan musika klasikoarekin konparatzen dut. Mozart-en obra bat jotzea bezalaxe da. Niretzat *bluesman* hauek beste batzuentzat Mozart edo Beethoven direna dira.

Horrexegatik, ez zait irteten blues bat sortu eta letra bat ingelesez idaztea. Egin izan dut, baina ideiak ez nau gehiegi erakartzen. Nahiago dut dagoenaren artean aukeratu eta nire omenaldi txikiak egin”.

Betidanik bere tokia izan duen estiloa

Belarrira eta bihotzera erraz sartzen den musika dugu bluesa, malenkoniatsua eta motela, azkarra eta alaia, bortitza eta sutsua izan daitekeena. Sustraidun estiloa eta mundu osoan oso barreiatua. Euskal Herrian ere betidanik izan du bere lekua. Azkenaldian, gainera, gero eta jaialdi gehiago eskaintzen zaizkio. Hor ditugu Bizkaian Getxoko eta Elorrioko nazioarteko blues jaialdiak eta Gipuzkoan Hondarribia, Tolosa eta Zizurkilgoa. Horrez gain, esan beharra dago hiriburueta jazzaldietan ere beti izan ohi duela lekua, jazz emanaldiez gain, blues gauren bat antolatzen baita Donostian, Baionan eta Gasteizen.

Bestalde, eta emanaldi horietan jendea barra-barra gerturatzen bada ere, bertako musikarien artean gutxi dira estilo hau jorratzen dutenak, eta blues diskoak erosteko ohitura dutenak ere ez

dira gehiegi. “Lehengoan bluesak Euskal Herrian 1990eko hamarkadatik gaurdaino izan duen bilakaera nola ikusten nuen galdetu zidaten. Eta egia esan ez dut gehiegi aldatu denik uste. Betiko moduan dagoela esango nuke. Bluesa hor izan da beti. Mundu guztiari gustatzen zaion musika da, baina gero nork erosten ditu blues diskoak? Oso gutxik. Zuzenean jendeak oso gogoko du, baina gero etxean oso gutxi dira entzuten dutenak. Musikarien artean jazz gero eta gehiago entzuten da, baina zenbat jendek egiten du bluesa? Oso gutxik”, azaldu du musikari donostiarrak. Zale direnek Stay Blues Euskal Herriko edozein txokotan lan berria aurkezten ikusteko beta izango dute berandu gabe. ■

“Lehengoan bluesak Euskal Herrian 1990eko hamarkadatik gaurdaino izan duen bilakaera nola ikusten dudana galdetu zidaten. Eta egia esan ez dut gehiegi aldatu denik uste”

Paul San Martin, Stay Blues



Mikeletegi pasealekua 53 • DONOSTIA
943308220 • www.arbelaitz.com



Arbelaitz Jatetxea